

HERRIZAINGO SAILBURUAREN ARABERA, «MUZIN EGIN ZITZAION ERANTZUKIZUNARI»

Balzaren ustez, Jaizkibelen laguntza faltak ekarri du alardean gertatua

■ Ertzaintzak Hondarribiko alardean izan zuen jarrera argitu du Balzak Parlamentuan

■ Konpainiak egin behar zuenaren berri eman izan balu «zerbait egin ahal izango zela» esan du


■ PPK izan ezik, gainerako alderdiek batzorde berezia sor dadin eskatu dute

Luis Karlos Garcia / Gasteiz

JAVIER BALZA Herrizaingo sailburuaren arabera, Hondarribiko Alardean gertatutakoak saihesteko neurriren bat har zitekeen Jaizkibel konpainiak Ertzaintzarekin elkarlanean jokatu izan balu. Kontseilariak kritikatu zuen konpainia mistoko arduradunek egin asmo zutenaren berri Polizia Autonomikoari ez eman izana, eta adierazi zuen, harreman hori egon zelako eragotzi zirela istiluak Irungo Alardean. «Hondarribian muzin egin zaio erantzukizunari», esan zuen Eusko Legebiltzarrean IUK hala eskatuta egindako agerraldian.

Balzak bi ordu egin zituen atzo batzorde parlamentarioaren aurrean Hondarribiko aurtengo alardean gertatutakoa azaltzen. Bideoaz baliatu zen iragan irailaren 8an Ertzaintzaren operatiboa egokia izan zela erakusteko asmoz. Hori bai, bideoan Jaizkibelgo lagunaren bultzakadak eta presioak baino ez ziren ikusi, eta apenas Ertzaintzaren indarrezko jarrerarik.

Kontseilariak berretsi egin zituen orain arteko arrazona-menduak. Ertzaintzak kargarik ez zuela egin esan zuen, eta erantsi zuen soil-soilik «beharrezko hiru kasutan neurriko indarra erabili beharrean» egon zela. Gainera, bederatzia ertzain zaurituta



EDURNE KOCH

Joan den irailaren 8an Hondarribiko alardean izan ziren istiluak.

gertatu zirela nabarmendu zuen, eta Jaizkibel konpainia lagundu zuten zenbaitzuk zituen horren erantzule.

Halaber, erru guztiak Ertzaintzari ez botatzeko eskatu zuen: «Gertatzen ari denaz kontzientzia txarra baldin badago, mesedez, errua ez bota Poliziari».

EH, IU-EB eta PSE-EE oso kritiko

Balzaren esanak entzun ondoren, bi jarrera nabarmen-

du ziren. Alde batetik, EHk, PSE-EEK eta IU-EBk kritika dezente agertu zituzten. EAJk, PPK eta UAK, bestalde ez zuten arazorik ikusi Hondarribian gertatutakoetan.

«Ertzain lerroa soberan zegoen, eta beharrezko izanez gero, emakumeen partehartzea bermatzeko eta alarde tradizionalekoek eraso zezaten saihesteko behar zuen», esan zuen Javier Madrazo IU-EBkoak. Era berean, «ekintza neutroa ez egitea» leporatu zion, eta oro har, adierazi

zuen ordena publikoak ezin duela sekula oinarritzeko eskubide bat zapaldu.

Gemma Zabaleta sozialistak esan zion Ertzaintzaren ekintzak ez zuela balio auziaren egoera hobetzeko. Halaber, erantzukizuna bere gain hartzeko eskatu zion Justizia Auzitegiak neurritz kanpoko-tzat hartuz gero.

Bestetik, talde politiko gehienek batzorde berezia sortu beharra azpimarratu zuten. PPK, ordea, «axolagabekeria» dela esan zuen.

Ikertu egingo da ertzain batzuek irain matxistak erabili zituztenez

■ HITZORDUA jarrita dago Irungo komisaldegian Ertzaintza, Herrizaingo Saila eta Jaizkibel konpainiako ordezkariak bildu eta Hondarribiko istiluetan gertatutakoari buruzko ikerketari hasiera emateko. Horrela, IU-EBk eta EHk atzo salatuaren ildotik, «ertzain batzuen jokaera matxista» izan ote zen argituko dute. «Inongo problemarik ez da ikertzeko ertzainen batek

zuek diozuen bezala jokatu zuen», esan zuen Balzak. Izan ere, talde ezkerzaleen kritikak larriak izan ziren. Jone Goirizelaia EHkoak «Ertzaintzaren jokabide matxistak» eteteko deia egin zuen. Javier Madrazo IU-EBkoak ere gogor hitz egin zuen: «Irainak, mehatxuak, kolpeak izan ziren: denetarik!». Jaizkibelek berak bere garaian egindako salaketak ziren.

«Lege iruzur nabarmena egin da», salatu dute EH eta IU-EB taldeek

■ JONE GOIRIZELAIA EHko eledunaren esanetan, «lege iruzur nabarmena» gertatu zen Hondarribian: «Alardea pribatizatuz ordena publiko arazo bilakatu zen, horrelako ezer ez bazen ere; horrela, Ertzaintzak auzian esku hartu zuen bi aldeetako bati babesa emanaz». Javier Madrazok berak ere berretsi egin zuen lege iruzurraz parlamentario abertzaleak esandakoa.

Balzak ukatu egin zuen arazoa Ertzaintzak eragin zuela. «Ertzaintzak ez du sortu ordena publiko arazo bat: hori esatea ez da zuzena, gizartearen intolerantziak eragin baitu, ez beste inork», azpimarratu zuen. Agerraldia amaitu zuen bi talde politikoi esanez zalantzarik ez daukala alardea debekatzeak «are arazo handiagoa» sortuko lukeela.

Bilboko aterpean izandako ustezko bortxaketa kasu bat ari dira ikertzen

■ Ustez hiru gizonen emakume bat bortxatu zuten iragan larunbatean

Efe / Bilbo

BILBOKO Elejabarri udal aterpetxean iragan larunbatean ustez gertatu zen bortxaketa bat ikertzen ari da Bilboko Udaltzaingoa, Udaleko iturriek atzo jakinerazi zuten.

Salaketa aurkeztu duen biktimaren arabera, gertakariak larunbata goizaldeko 03:00ak aldera izan ziren: hiru gizonetzko leiho batetik sartu ziren aterpetxean eta labana batez baliatuz biktimaren logelako atea indarrez zabaldu zuten.

Emakumeak kontatu zuenez, erasotzaileek logela ondoko terraza batera eramane zuten eta sustantzia toxiko bat edanarazi ostean, bortxatu egin zuten.

Hurrengo astelehenean, emakumeak gertakariaren berri eman zion udal aterpetxeko zuzendaritzari. Berarekin ordu batzuetako elkarrizketa izan ostean, Bilboko Ongizate Sailak emakumeak salaketa aurkez zezan lortu zuen.

Ikerketa zaila

Iturri berberetik jakinarazi zuten, ikerketa zaila gertatzen ari da ustezko erasotzaileen ezaugarriak ematerakoan emakumea kontraesanetan erortzen delako.

Astelehenean bertan, Udaltzaingoa biktimak emandako ezaugarriekin bat zetorren gizon bat atxilotu zuten Elejabarri aterpetxean. Emakumeak, ordea, ustezko erasotzaileei buruzko testigantza aldatu egin zuen, eta gizonaren kontrako bestelako frogarik ez zenez, azkenean aske utzi behar izan zuten.

Udaltzaingoa eraso gertatu zenean aterpetxean zeuden lagun guztiei hartu die deklarazioa. Baina beren testigantzak ez dira lagungarriak izan ikerkuntzan aurrera egiteko.

Udaleko gizarte zerbitzuak emakume erasotua zaintzen duten bitartean, aterpetxeak pentsio pribatuetan eman die ostatu emakumeei.